

**IRAKURKETA
PLANA**

ADUNAKO HERRI ESKOLA

0.- SARRERA/DIAGNOSTIKOA

Adunako hezkuntza proiektuan azaltzen den moduan, “eguneroko praktikaren oinarria talde lana da eta bertan ikaskuntza kooperatiboko estrategiak erabiltzen dira. Burutzen diren jarduerak, ez daude testu liburuetan oinarriturik, proiektua deritzogun ardatz komun bat daukate eta horren inguruan eskola osoak curriculuma garatzen du. Inguruan dauden baliabide naturalak eta bestelakoak ere txertatzen ditugu eskolako eguneroko praktikan. Baita ere bultzatzen dugu guztion parte hartzea: ikasle, irakasle eta guraso.

Plan hau egitura horren barruan txertatuta dago, eta ikasleen irakurketa konpetentzia garatzeko ahaleginean diseinatu da. Hori horrela, hautemandako beharren egokitzapenak etengabekoa izan behar du ikaskuntza prozesu guztietan, baita irakurketari dagokionez ere. Horregatik, irakurketaren ulermena garatzeari buruzko ekintzak diseinatzeaz gain, irakurritz gozatzea ere ezinbestekoa dela ezin dugu ahaztu.

Irakurketa planaren inguruko diagnostikoa egiteko garaian, hainbat informazio iturri erabili ditugu. Esaterako, eskolako egunerokotasunean egiten diren jardueren barne hausnarketa, kanpoko ebaluaziotik jasotako emaitzen azterketa, Hezkuntza Saitetik datozen jarraibideak... Horiekin guztiekin, planaren eguneratzea egin dugu.

1- LEHENTASUNEZKO JARDUERA ESPARRUAK

Hezkuntza prozesuaren ardatz nagusienetariko bat da irakurketa. Beraz, garrantzitsua da ikastetxeko irakurketa plana osatzea. Bertan, ikasleak irakurle aktiboak izatea eta irakurtzen dituzten testuak era eraginkorrean uler ditzaten bilatzen da, bai ikasteko eta baita gozatzeko eta gizarte-elkarrekintzarako ere.

Hainbat jarduera egiten dira gure ikastetxean irakurketaren inguruan, baina 2016-2017 ikasturteko memorian, hurrengo ikasturteei begira, **solasaldi literarioak euskaraz ere egitea** jaso zen. Izan ere, ikasleen esanetan, erdaraz irakurtzeko erraztasun handiagoa dute euskaraz baino.

Bestalde, 2017-2018 ikasturte hasierako ebazpenean honakoa aipatzen da: “..., eremu eta arlo guztietako irakasleek hitzezko komunikazioan, ez hitzezkoan eta digitalean oinarritzko zehar-konpetentziaren helburuak, edukiak eta irizpideak sartuko dituzte euren urteko programazio didaktikoetan, testuen idatzizko eta ahozko

ulermena lehenetsita. Gainera, eremu horretan garatu beharreko ekintzen artean, **literatura-hizketaldiak lehentasunez ezarriko dira** aipatutako kompetentzia lortzen laguntzeko sistematizatu beharreko baliabide modura.”

Halaber, irakasleriaren etengabeko formazioaren barruan, Berritzeguneak eskainitako “Ikasteko irakurri” formazioa jaso dugu, ondoren, **testuen ulermenaren protokoloa adostuz**.

Prozesuaren azken lehentasunezko ekintza **irakurketa planaren beraren ebaluazioa** izango da. Horretarako, Ikastetxeko urteko planean ezarritakoaren arabera, prozesuaren ebaluazioa egingo da, jaso daitezkeen hobekuntza proposamenak irakurketa plan berrian txertatuz.

Honekin guztiarekin, Adunako herri eskolako irakurketa plana osatu da, Hizkuntz proiektuarekin osatuko duena. Dokumentu honek dokumentu izaera bizi eta malgua du, eta urtero eman daitezkeen hobekuntza proposamenek direla medio aldaketak jaso ditzake.

2- HELBURUAK

Lehen aipatutako hobekuntza proposamenak bi arloetan sailkatu ditugu; “Ikasteko irakurri” batetik eta “Irakurzaletasuna garatu” bestetik.

IKASTEKO IRAKURRI

- Akordioak adostu irakasle guztien artean, hainbat testu informatiboren irakurketa koherentziaz lantzeko ikasgelan.
- Kolaboratzeko eta kooperatzeko teknikak eta estrategiak aplikatu, testuak irakurtzean irakurritakoa hobeto ulertzeko.
- Irakurtzeko estrategien inguruko eta ikasleei behar duten laguntza eskaintzeko prestakuntza eman irakasleei.

IRAKURZALETASUNA GARATU

- Familiei orientazioa eman, ikasleei irakurtzeko ohitura hartzen laguntzeko moduan izan daitezten.
- Eskolaren inguruak eskaintzen dituen aukerak baliatu, edonolako testuak irakurtzeko bultzada emateko, batez ere, inguruko hizkuntzetan idatzitako testu literarioak irakurtzeko.

3- JARDUERAK

Gure eskola Adunako herrian kokatzen da. Bertan, biztanleen gehiengoak euskaraz hitz egiten du, baina azken aldian ondoko herrietako pertsonak etorri dira berataraz bizitzera. Hau dela eta, gaztelaren presentzia handitzen doa.

Gure ikastetxean hizkuntzen inguruan egiten den erabilera ikusteko, ikastetxeko hizkuntza proiektuan jasota dagoena aztertuko dugu.

Gure eskola D eredu ikastetxea da, eta hizkuntzen trataera integral eta integratua lortzearen inguruko proiektuetan parte hartu izan du.

- Euskara: eskola eta herriko hizkuntza da, baita harremanetarako ere. Irakurketa eta idazketa prozesua eskaraz hasten da.
- Gaztelera: Irakurketan, ulermen egokia lortzea eta, idazketan, testu egokiak sortzea izango da helburua. Ikasle gehienek ama hizkuntza euskara da eta horregatik 4 urterekin hasten gara gaztelera gelan erabiltzen.
- Ingelesa: lau urtetik aurrera erabiltzen da eta honez gain arlo bat ingelesez ematen da. Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan ingelesaren presentzia areagotzen da, eta goiko mailetan, ingelesa arloz gain, beste arlo bat ingelesez jasotzea hobesten da.

Nagusiki bi jarduera ardatz hartuko dira kontuan; **ikasteko irakurri** eta **irakurzaletasuna** garatu. Hauetako bakoitzean bi testuinguru bereizi beharko lirateke; **ikastetxea: ikasgela eta eskola-liburutegia** batetik eta **familia ingurua** bestetik. Baina, gure eskolan dugun espazioa dela eta, liburutegia informatika gelarekin partekatzen da. Horregatik liburutegi txikiak ditugu gela bakoitzean, eta eskolan ez dago liburutegiko arduraduna.

3.1 IKASTEKO IRAKURRI

Honako ikuspuntua azpimarratu behar da: ezagutza garatzeko eta ikasteko funtsezko baliabidea da irakurketa, eskola esparruan nahiz eskolatik kanpo; izan ere, irakurtzen jakiteak eskola-arrakasta ezinbestean bermatzen ez badu ere, irakurtzeko gaitasuna behar bezala garatuta ez izatea eskola-porrotaren arrazoietako bat da eta norbanakoaren garapen kognitiborako oztopo. Eskolak eta bertako estamentu guztiek hartuko dute parte irakurtzeko gaitasunaren garapenean.

Eremua	Ikastetxea: ikasgela eta eskola-liburutegia		
Jarduerak	Denbora-epeak eta arduradunak	Baliabideak	Ebaluazioa
Ikasleekin batera, irakurketaren inguruko hiru faseei lotutako estrategiak garatzen laguntzeko ekintzak sistematikoki planifikatzea (1)	Hiruhilekoan behin gutxienez. Lehen hezkuntzako irakasleak eta ikasketa burua	“Ikasteko irakurri” formakuntzako txostenak.	Irakurketa prozesuan oinarritutako hiru faseetako estrategiak erabili dira testu ezberdinak lantzeko. Hiruhileko bakoitzean gutxienez testu bat aurreko estrategiak erabilia landu da.
Arloko programazioetan ezaugarri desberdinak dituzten testu motak aurreikustea (2)	Ikasturtean zehar. Irakasleak orokorrean.	(2) atalean aipatzen diren ezaugarrien araberako testuak.	Ikasleei eskainitako testuak (2) atalean jasotzen diren ezaugarrien arabera hautatu dira.
Testu bat eredu bezala hartu	Hiruhilekoan behin.	Irakasleak egokitzen	Testu-eredu bat hartuz berria sortu da.

eta norberarena sortzea	Irakaslea.	jotzen duen testua.	
Irakurketa partekatua egitea	Ikasturtean zehar Tutorea	Irakasleak egokitzat jotzen duen testua.	IKKI egitura erabiliz irakurketa partekatua egin da.
Irakurketa-autoebaluazioak egitea	Hiruhilekoan behin Tutorea	Eranskina (irakurketaren autoebaluazioa)	Ikasleek irakurketaren autoebaluazioaren taula osatu dute hiruhilekoan behin.
Eremua	Familia ingurua		
Gurasoen bileretan irakurketari buruzko orientabideak eman	Ikasturtean behin. Tutorea.	(ikus eranskina)	Tutoretza bileretan irakurketari buruzko orientabideak eman zaizkie gurasoei.
Inguruko eskaintzaren eta kultura-proposamenen berri eman ikasleen parte hartzea sustatzeko familien laguntzaz.	Ikasturtean zehar Klaustrokideak	Topatzen den informazioa	Eskolara iritsitako ekitaldi eta proposamen berri luzatu zaie familiei.
Eskolako blogan gurasoen gunea sortu material interesgarria familien eskura jartzeko	Ikasturtean zehar Ikasketa burua	Material ezberdina, bloga	Gurasoen gunea sortu da blogean material aproposarekin.

(1) Irakurketa prozesuak hiru fase ditu:

1-Irakurri aurretik (Ikus 6.2. eranskina: Planifikazioa)

- Irakurketaren helburua zehaztea. Zertarako irakurriko den zehaztea.
- Testuak esanahiaren aldetik eskain dezakeenaren inguruko hipotesiak eta jakin-mina lantzea.
- Aurretiko ezagutzak aktibatzea.
- Iragarpenak eta hipotesiak adieraztea.

2-Irakurri bitartean (Ikus 6.2eranskina: Laguntza ematea)

- Hipotesiak etengabe egin eta egiaztatzea.
- Irakurritakoaren gaineko galderak egitea.
- Testua irakurri ahala sortzen diren zalantzak argitzea.
- Irakurri ahala, atalen edukia laburbiltzea.

3-Irakurri ondoren (Ikus 6.2 eranskina: Galderak egitea eta laburbilketa)

- Irakurritakoa laburpenen, eskemen eta buru-mapen bidez berrantolatzea.
- Irakurritakoa berrerabiltzea, eta ezagutza berria eraikitzea.

Hiru fase hauek gauzatzeko jarduerak proposatuko zaizkie ikasleei, beti ere, kontuan izanda prozesu honetan oztupoak egongo direla eta irakaslea laguntzeko prest egongo dela.

(2) Testu mota ezberdinak lantzea eta eskura izatea aberasgarria da ikasleentzat. Hona hemen testu-bankuaren ezaugarriak zeintzuk izan behar duten:

- Gaurkotasuna eta gizarte errealitatea islatzen dituzten testuak.
- Kalitatearen eta eraginkortasunaren arabera hautatuak.
- Ikasleen interesekoak eta haien ezagutza-mailarako egokiak.
- Askotarikoak, testu-tipo, testu-genero eta erabilera-eremuari dagokienez.
- Analogikoak eta digitalak.
- Jarraituak eta ez-jarraituak.
- Beste hizkuntza batzuetan idatziak.
- Egokituak, irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat.

3.2 IRAKURZALETASUNA GARATU

Jakin badakigunez irakurzaletasunak norberaren garapenari ez ezik, eskola-arrakastari ere laguntzen diola, irakurtzeko ohitura sendotzea eskolaren helburu bat da. Izan ere, beren borondatez inork behartu gabe disfrutatzeko irakurtzen dutela adierazten duten ikasleek lortzen dituzte emaitza

Eremua	ikastetxea: ikasgela eta eskola-liburutegia			
Jarduerak	Denbora-epeak arduradunak	eta	Baliabideak	Ebaluazioa
Irakurketa tutorizatuak egitea	Egun berezietan. Ikasketa burua		Momentu horretan eskolak beharrezkoak ikusten dituenak.	Irakurketa tutorizatuak antolatu dira.
Solasaldi literarioak egitea.	Ikasturtean zehar Hizkuntzako irakasleak		Irakasleak egokitzen jotzen duen testua.	Solasaldi literarioak egin dira.
Liburu mailegua bultzatzea	Ikasturtean zehar Tutorea		Liburutegia	Liburu mailegua egin da.
Irakaslea eredu, irakurketa dramatizatua egitea	Ikasturtean zehar Irakasleak		Testu aproposa	Irakurketa dramatizatuak egin dira

Galtzagorri elkarteko "Liburuen altxorra" egitasmoan parte hartzea	Ikasturtero epe jakin batean Zuzendaria	Galtzagorri elkarteko materiala eta arduraduna	"Liburuen altxorra" egitasmoan parte hartu da.
Ikasleekin batera, gustuko liburuak erostera joatea.	Ikasturtean behin Tutoreak	Irteera antolatzekeo beharrezkoa dena	Liburuak erostera joan dira
"Hizkien altxorraren" (jolas-garaikoliburuen kutxa) erabilera bultzatzea	Egunero Irakasleak	"Hizkien altxorraren" kutxa	"Hizkien altxorraren" kutxa egunero atera da jolasgaraian.
Irakurketa librerako tartea eskaintzea	Ikasturtean zehar Hizkuntzako irakasleak	Testu ezberdinak	Irakurketa librea egiteko aukera eman zaie ikasleei
Inguruko ipuin lehiaketetan parte hartzera gonbidatzea	Lehiaketa deialdietan Hizkuntzako irakasleak	Irakasleek ikasleei proposamena luzatu eta lehiaketako betebeharrak	Eskolara iritsitako ipuin lehiaketetako gonbiten parte hartzera animatu zaie
Idazleak eskolara ekartzea	Ikasturtean behin Zuzendaria	Idazleen elkarteko gonbitea	Idazleak eskolara ekartzeko eskaera egin da
Literatur astea antolatzea	Ikasturtean behin Zuzendaritza taldea	Literatur astea antolatzekeo beharrezkoa ikusten dena	Literatur astea ospatu da

Liburu berriak eskura jarri.	Ikasturtean zehar. Irakasleak	Liburu berriak jartzeko gunea.	Ikasturtean zehar liburu berriak nobedadeen gunean egon dira.
Eremua	Familia ingurua		
Jarduerak	Denbora-epeak eta arduradunak	Baliabideak	Ebaluazioa
Gurasoak gonbidatzea ikasleei ipuinak kontatzera	Ekintza berezietan. Zuzendaritza taldea	Gurasoen gonbidapena.	Gurasoek ipuinak kontatu dizkiete ikasleei.
Eskolak luzatutako liburu kanonikoen berri jasotzea	Ikasturte hasieran Tutorea	Liburu kanonikoen zerrenda.	Gela bileretan liburu kanonikoen zerrenda eman zaie familiei
Herriko eta inguruko liburutegien erabilera bultzatzea	Ikasturte hasieran Zuzendaritza taldea	Liburutegiak	Aduna eta inguruko liburutegien erabilera bultzatu da

4. DENBORA EPEAK ETA ARDURADUNAK

Aurreko puntuko taulan zehaztuta daude jarduera proposamen bakoitzeko arduradunak eta epeak zeintzuk diren. Halaber, badira IRAKURKETA PLANAREN beraren planifikazio, berrikusketa, jarraipen... ekintzen denbora epeak eta horien jarraipena egiteko arduraduna. Hau honela, zuzendaritzari dagokio (ikasketa buruari, hala zehazten bada) ekintza plan honen jarraipena egitea:

Ikasturte hasieran: Irakasleei irakurketa planaren berri eman irakasle guztiei.
Ikasturtean zehar: programazioak berrikusi eta irakurketa planean adierazitako jarduera proposamenak burutu direla ziurtatu.

Ikasturte bukaeran: Prozesuaren ebaluazioa egiteko proposamenak bideratu eta aztertu.

5. EGINDAKO JARDUEREN EBALUAZIO PROZEDURAK (Txantiloiak)

Irakurritakoaren autoebaluazioa

5.1 ERANSKINA

IRAKURKETA AUTOEBALUAZIOA	BAI	EZ
Irakurri aurretik... Izenburuari erreparatur, testuaren gaia zein den jakiteko gai izan naiz. Irudiei, formari,...erreparatur, testuak zertarako balio dezakeen jakiteko gai izan naiz.		
Irakurri bitartean gai naiz... Testua ulertzeko. Gainerako testuari erreparatur, hitz ezezagunen esanahia deduzitzeko. Hurrengo paragrafoak zeri buruz hitz egingo lukeen sumatzeko. Garrantzitsua eta ez hain garrantzitsua zer den bereizteko, letra mota, kolorea,...kontuan izanda.		
Irakurri ostean gai naiz... Edukiari lotutako beste izenburu bat aurkitzeko.		

<p>Edukia laburbiltzeko. Irudiak eta testuaren edukia lotzeko.</p> <p>Idea bakoitza dagokion paragrafoarekin elkartzeko.</p> <p>Ikasitakoa lehendik nekizkien edukietatik bereizteko.</p> <p>Kontzeptu mapa bat egiteko.</p>		
--	--	--

5.2. EKINTZEN EBALUAZIOA

JARDUERA	ZER NEURRITAN BETE DA?	ERAGINKORRA IZAN DA?	ALDERDI AZPIMARRAGARRIAK	HOBETU BEHAR DIREN ALDERDIAK. PROPOSAMENAK

6 ERANSKINAK: EKINTZAK GAUZATZEKO MATERIAL ERABILGARRIA

6.1. ZER EGIN DEZAKET SEME-ALABEK IRAKUR DEZATEN?

- Lagundu, ez behartu.
- Eskolako lanen jarraipena egin.
- Irakurtzeko leku lasaia eta giro egokia prestatu.
- Egitekoak antolatzen lagundu: denbora, liburuak...
- Interesa erakutsi semeak edo alabak egiten duenez, ezagutzak eta liburuak partekatuz, interneten informazio bilaketak eginez...
- Adi egon eta zalantzak argitzen lagundu.
- Informazio- eta kontsulta-lan egokiak aukeratu.
- Askotariko informazio-iturriak erabiltzeko aukera eman etxean.
- Interneten lagundu eta elkarrekin nabigatu.
- Haiekin joan liburu dendetara, liburu azoketara, erakusketetara...
- Liburutegiko bazkide egin.
- Irakurtzea ohitura bihurtu.
- Liburuak aukeratzeko askatasuna eman; libururik ez debekatu.
- Haien adinerako egokiak diren liburuak eskaini.
- Haiekin irakurri.
- Irakurritako liburuen inguruan hitz egin.

6.2. IKASTEKO IRAKURRI: FASEAK GAUZATZEKO ESTRATEGIAK IRAKASLEARENTZAT

PLANIFIKAZIOAK (irakurri aurretik)

- Testuaren AURRERAPENA da.
- LORTU behar duten zerbait agertu behar da.
- Planifikazioan EZ DIRA ideiak aipatzen.
- Planifikazioa laburbilketan bete egin behar den KONPROMISOA da.
- Planifikazioak eta laburbilketak KOHERENTEAK izan behar dute.

LAGUNTZA EMATEA: MODU EZBERDINAK (irakurri bitartean)

- ERREGULATZAILEAK

Galderarekin doan laguntza da. Testuinguru bat sortzen dute baina erantzuna ez da ematen. Erantzuna arrakastatsua izatea nahi da. Ikasleak autonomia du.

Galdera irekia egitean agian ez dugu jasotzen guk nahi dugun erantzuna horretarako, laguntza eskaini behar diegu.

Adibidez: eskeletoaren funtzioak hurrengo paragrafoan azaltzen dira. Irakurri eta horietako bat esango didazu?

- BARNEKOAK

Ikaslearen erantzunarekin batera doa. Ongi erantzuten badu, aurrera. Ez badu guk nahi duguna erantzuten bi eratako laguntzak daude: **inbasiboak** eta **ez inbasiboak**.

Inbasiboak: Ikasleak erantzun du baina ez da erantzun egokia. Ikasleari erantzunaren zati bat ematen zaio osa dezan. Baita ere BAI/EZ erantzun baten bidez. Ikaslearen autonomia oso urria da.

Adibidez: Nora joan zen protagonista, Marokora ala Senegalera?

Ez inbasiboak: Ikasleak erantzun du baina ez da erantzun egokia. Animatu egiten dugu ikaslea beste aukera edo pistaren bat ematen. Hauetan erantzuna ez da agertzen, erraztu egiten die aurkikuntza. Beste ikasle bati galdetzen diogu.

Adibidez: Ziur al zaude? Hobeto pentsatu.

- FEEDBACK-EKOAK

Ikaslearen erantzun egokiaren atzetik doaz. Honekin ongi erantzun duela baieztatu egiten zaio eta autonomia dauka ikasleak. Baita ere erantzuna aberasteko balio dute. Hemen ikasleak ez du halako autonomia.

GALDERAK (irakurri ondoren)

- **INFORMAZIOA AUKERATZEKOAK.**

Ikasleen atentzioa testuko ideia nagusietara zuzenduko dutenak izango dira. Erantzuna testuan bertan dago.

- **INFORMAZIOA ANTOLATZEKOAK**

Testuan azaltzen diren ideia desberdinak erlazionatzera, konexioak egitera bideratuak egongo dira. Hau da, buru eskemak egitea.

- **INFORMAZIOA INTEGRATZEKOAK**

Aurrezagutzak testuko ideiekin lotzeko aukera ematen dutenak dira. Erantzuna ez dago testuan. Abstrakzioa egitea daramatzate. Testutik haratago doa.

- **TESTUA MODU KRITIKOAN BERRIKUSTEKOAK.**

Testuak informazioa azaltzeko moduari buruzkoak dira, ikasleak ulertzeko martxan jarri behar dituen prozesu mentalei buruzkoak. Testuaren formari eta edukiari erreparatuko diote.

LABURBILKETAK (irakurri ondoren)

- Laburbilketa ondorio bat da (konklusioa bat).EZ DU LUZEA izan behar.
- Laburbilketan IDEIA NAGUSIAK edo oinarrizkoenak bakarrik agertu behar dute.
- Laburbilketa batean ideiak AGERIAN egon behar dute. Ez da nahikoa zerrendatze bat.
- Laburbilketak, nolabait, baieztatu egiten dute PUBLIKOKI ideiak ulertu egin ditugula.
- Errutina bihurtzea lortu behar da. Ez du axola zer tipokoa.

IRAKURKETA-TEKNIKA ETA -ESTRATEGIA EZBERDINAK

SOLASALDI LITERARIOAK:

- Helburuak:

Literaturaz gozatzea.

Partaide guztien artean testuaren esanahia eraikitzea,

Argudiatzen ikastea.

Balio positiboak lantzea.

- Metodologia:

-Solosaldea baino lehen, parte hartzen dutenek aurrez zehaztutako kapitulua edo orrialde kopurua irakurtzen dute. Irakurleek atenzioa eman edota gogoeta sorrarazi dieten paragrafoak, atalak edo esaldiak aukeratzen dituzte eta markatu egiten dituzte pos-itak erabiliz edo azpimarratuz.

-Saioan, ikasleek, hitz egiteko txanda eskatuta, ozenki irakurtzen dute aukeratutako atala eta zergatik aukeratu duten azaltzen dute. Besteek, irakurritakoaren inguruan argudiatu dezakete edo kontrako iritzia eman.

-Solasaldiaren moderatzaileak, tutorea gehienetan, hitz egiteko txandak arautzen ditu eta parte hartzera animatzen ditu ikasleak. Ekarpenak egiten dituzten ikasleen izenak idazten ditu. Tutorea beste kide bat da taldean, beraz, ezin du bere iritzia ezarri.

- Etxean egiten da aurrez adostutako atalaren edo kapituluaren banakako irakurketa. Hala ere, irakurtzeko zailtasunak dituen ikaslerik badago eskola orduetan prestatuko da irakurketa.

BOZ GORAKO IRAKURKETA

Irakasleak edota ikasleek egindako boz gorako irakurraldi on batek irakurketaz gozatzeko aukera ematen du: irakurtzen duenarentzat jarduera atsegina da eta entzuten duenarentzat, berriz, gozagarria. Boz gorako irakurketa ikastetxeko liburutegian edota ikasgelan egin daiteke. Ondo hautatu behar dira irakurri eta partekatuko diren testuak. Horrez gain, beharrezkoak dira planifikazioa eta entrenamendua, irakurketa eraginkorra eta ona izan dadin. Ikasleei, irakurtzeko gaitasuna sendotu ahala, proposa dakieke, noizbehinka eta denbora-tarte laburretan, gelako beste kideei testuak ozenki irakurtzea. Horretarako, denbora

eman behar zaie irakurketa prestatzeko, bai etxean, bai ikasgelan edo ikasgelatik kanpo beste irakasle batekin...; betiere irakurketa ona egingo dutela egiaztatuz, jarduera hori bai entzuleentzat, baita irakurlearentzat ere, atsegina izan dadin.

SEI IRAKURLE TESTU BATEN BILA

Irakurketa-jarduera hau taldeka egiten da, sei ikasleko

taldeetan eta taldekide bakoitzak zeregin bat du irakurketa-xedearen arabera.

Irakasleak proposatzen ditu rolak:

- Irakurlea. Testua ozenki irakurtzen du. Ikasle guztiek dute testuaren kopia.
- Detektibea. Eten egiten du irakurketa ongi ulertzen ez dituen hitzak edo hitz “zailak” entzuten dituenear.
- Galdetzailea. Entzun ahala, bere iritziz falta diren datuak galdetzen ditu. Testua behar bezala ulertu ahal izateko egin beharko liratekeen galderak egiten ditu.
- Kazetaria. Testuaren atalak laburtzen ditu; taldekoen ‘oroimen’ gisa funtzionatzen du.
- Jakintsua. Bere iritziz interesgarriak diren beste ideia, informazio edo datu batzuekin erlazionatzen du irakurgaia.
- Igarlea. Irakurleak, momentu jakin batean edo amaiera baino lehen, utzi egiten dio irakurtzeari, eta igarleak igarri egin behar du zein den atal horren edo testuaren amaiera.

GIZA-LIBURUAK

Proposamen honek beste pertsona batzuekin, hau da, entzuleekin, lotzen ditu hitzak eta irakurketa. Ekimenean parte hartzen duen irakurleak pentsatu behar du liburua balitz zein liburu edo zein testu izango litzatekeen. Gero, hautatutako testu txatala ongi ulertu, eta buruz ikasten du. Hala, ‘giza-liburu’ bihurtzen da, eta beste pertsona batzuei errezitatuko die buruz ikasitakoa. Jarduera hau aurrez planifikatutako eta antolatutako parametroen arabera egin daiteke, esaterako, literatur testuak hauta daitezke, eta egun berezi batean edo ospakizunen batean, ‘giza-liburuek’ buruz ikasitako pasarteak errezitatuko dizkiete bertaratuko direnei.